

Bizitza ezustez beteta dago

Réaltán Ní Leannáin



bestehitzak
||| |

otherwords
||| |

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal Sarasua

Bizitza ezustez beteta dago

Réaltán Ní Leannáin

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal Sarasua

Dendako erakusleihoko zapata gorri finari begira gelditu zen Siubhán Ní Bhrádaigh. Gorria baino gehiago karmin kolorekoa zen, italiar larruz egina, dotorea, apaindura eta filigranez hornitua. Orpo luze haiek erosteko irrikaz zegoen, saiakeran lepoa hautsi bazezakeen ere.

Siubhán. Zapata jantzi. Zapata erantzi^{*}. Hala deitzen zioten eskolan, Dublinen. Errege Institutua pribatua zen, eta bertako gaztetxoek, atseginek eta ez hain atseginek, beren lurraldea markatzen zuten, eta hierarkia bat ezartzen. Ikasle batzuk adarra jotzen saiatzen ziren, *Zapata jantzi* deitzen, edo batzuetan *Zapata erantzi*. Funtzionatzen zuen. Seánek eta Ruthen Shue deitzen zioten, eta ongi iruditzen zitzaion. Hirurak hasi ziren beren buruari Shue Taldea deitzen, harroputzen aginteari aurre egiten.

Institututik Dublineko zenbait Unibertsitatetara pasatu ziren, baina ikasketa urteetan ere elkartzen ziren tarteka. Ruthen Musika ikasi zuen. Seánek Historian eman zuen izena. Biak hiru urteko karrerak. Graduatu zenetik ia urtebete geroago, Seánek langabezian jarraitzen zuen, bina gelako solairu biko etxean bizitzen bere amarekin. Ruth bere haur gelan bizi zen artean, Dodder ibai ertzetako adreilu gorriko etxetzar viktoriarrean. Ruthen gurasoek ez zuten ezer jakin nahi langabezia sariaz, eta diru bat pasatzen zioten hilero. Haien adineko gainerako guztiak langabezian zeuden, edo soldatarik gabeko praktikak egiten, edo bestela Kanada edo Australiara alde eginak ziren.

Shuek lau urteko karrera aukeratu zuen, Zuzenbidea eta Espainiera. Hirugarren urte ahaztezin bat eman zuen Valentzian ikasten. Eguzkia, itsasoa, gurasorik ez, eta horri guztiari dagokion bizimodua. Ikasten, tarteka-marteka ingeles eskolaren bat edo beste ematen, eta eskolak kobratu bezain laster Benimacleteko tabernetan xahutzen. Ez zeukan gogo handirik azken urtea gurasoen bizkar emateko adreilu gorriko bere etxean, Ruthenetik harantzago ibaian behera. Ez zeukan dirurik, ordea; beraz, ezta alternatibarik ere.

Laugarren urtea amaitzen ari zen, eta graduatzeko irrikan zegoen. Gutxienez, Zuzenbide graduarekin abokaturen batentzat lan egin ahal izango zuen soldata ziztrin baten truke. Agian bere gurasoen lagun batek hartu zezakeen. Edo bestela, Valentziara itzuli besterik ez zuen, ingelesa irakastera. Edo yoga.

Ostera begiratu zion objektu fin hari. Ez, lepoa hautsiko zuen orpo haiekin. Gainera, gorria ez zen bere kolorea. Gehiago zen Ruthena.

Ruth. Beti haserre irakasleekin korrika zihoalako, ibili beharrean. Beti hizketan, entzuten egon beharrean. Ruth gajoa. Lastima azkarrago korrika egin ez izana Romeo bizitzan agertu zitzaionean.

* Hitz joko itzuli ezina. Siubhán izenaren lehen silaba zapata (*shoe*) bezala ahoskatzen da [shu] (I.O.).

Romeo greziar «zaborrontzi miatzaile» bat zen, Shueren anaia zaharrak ezin dotoreago adierazi zuen moduan. Greziako soldadutza saihesteko ihesi, Europako zaborrontzietan bilatzen zuen janaria: hanburger erdi janak, salmenta data pasatutako supermerkatuetako ogia, ogitarteko hondarrak. Ahal zuen lekuan lo egiten, zaborrontziz zaborrontzi Greziatik urrunduz joan zen, harik eta Irlandara iritsi eta bertatik aurrera ezin egin izan zuen arte. Behin batean aulki batean eseri zen, Ruthen ondoan, Liffey ibaiaren ertzetik zihoan oholezko bidean. Ruthi agortu egin zitzaizkion denda eta tabernetan entregatu beharreko curriculumak, eta atsedean hartzen ari zen bere lan bilaketan.

Hizketan hasi ziren. Arrotzen arteko ohiko kontuak: eguraldia, hartu eta eramateko kafeen prezioa, eguraldia berriz, politika... Bi pertsona gazte, lanik gabeak eta asti askorekin.

-Orduan, zer? Bikote zarete, ala? -galdetu zuen Shuek.

Shueren sukaldean zeuden, te kikara luzeak eskuan. Ruth sukalde ekonomikoaren alboan eserita, bere txoko kuttunean. Ruthek oso gogoko zuen epeltasun hura. Uda zen, baina bero handirik ez zegoen. Barretxo bat egin zuen.

-Bai, andrea, nire lehen taxuzko mutil-laguna. Romeo ez al da sekulakoa?

-Romeo? Tira, Ruth, nondik atera du izen hori?

-Ezin zion inori esan benetako izena, greziar agintarien beldur baita.

-Ezta hiri ere?

-Ezta niri ere. Ni babesteko dun. Baina «Romeo» gustuko dinat. Hain dun erromantikoa. Hura bezala.

Seánek eta Shuek emandako gauzak lasai hartzeko gaztiguak gorabehera, Ruth gero eta gehiago zebilen lizunkerietan Romeorekin. Nork aurpegiratu ziezaiokeen? Kutsu exotikoko haren ingelesa, kizkur beltzez inguratutako larruazal olibakara eta begi ilun sakon-sakon haiekin, Romeo izena zeramanak Romeoren izaera ere bazeukan.

Aste batzuk lehenago, arrats batean Shuek bisita egin zion Ruthi etxera. Denbora zeraman hura ikusi gabe. Greziarrarekin nahiko lan izango zuen, seguru asko. Ruthen gurasoak etxe handi isolatu batean bizi ziren, Dodder ibaiaren ertzean. Atzeko lorategiaren behealdetik pasatzen zen ibaia. Bizileku zinez dotorea. Baina ate bikoitz itxiaren atzetik zetorren ahotsa, bera kanpoko burdin hesian zegoelarik, ez zen batere dotorea.

-Ruth! Zentzu pixka bat erakutsi. Tentel hutsa da, ezertarako balio ez duen tontolapiko etxegabe bat. Zer eskain diezazuke?

-Elkarrekin maiteminduta gaude, aita, eta kito.

-Ezin zara maiteminduta egon alproja ezgai horrekin. Haren benetako izena ere ez dakizu. Ez dakit zein den okerragoa: nire alaba tuntuna edo greziar alderrai hori.

Atea kolpetik ireki zen Shuek atzera egiteko astirik izan gabe. Shuek ez zuen Ruthen aita topatu nahi aldarte hartan zegoenean. Baina Ruth zen, negar-zotinka, haren berokia hegan. Shueren albotik igaro eta kale kantoian desagertu zen. Shue atzetik joan zitzaion, eta errepidean aurreraxeago topatu zuen.

-Ruth, zer gertatzen da?

-Aitak ez din ezer ulertzen! -erantzun zuen zotin artean-. Ez ninan Romeo ebaska sartu nahi, gertatu egin dun. Bart mozkortu egin gintunan, eta gero haiek itzuli zitunan, eta-eta...

Haren gurasoek golf klubean afaldu zuten, nonbait, eta gauerdi inguruan etxeratu zirenean vodka botila hutsa eta bi baso huts aurkitu zituzten bar-altzariaren gainean, eta Ruthen gelako atea, giltzapetuta. Ama negarrez hasi zen, aitak atea botatzearekin mehatxatu zuen. Barruko bien aldetik ezein erantzun ez baitztorren, aitak etxeko ate guztiak giltzapetu zituen, lo zeuden bitartean Romeok oroigarriren bat eramateko tentaldirik izan ez zezan. Waterford kristalezko baxera, edo ordenagailu eramangarrietako bat. Ruthen gurasoek ia ez zuten lorik egin egunsentia arte; orduan, azkenean nekeak gaina hartu zuen.

Hurrengo goizean Ruth logelatik irten zenean, haren gurasoak lo seko zeuden. Romeo ate nagusitik atera zuen oraindik lo zeuden bitartean. Baina haiei aurre egin beharko zien geroago jaikitzen zirenean...

Gurasoek ez zuten amore eman. Mutil hark ez zuen ez izenik ez dirurik. Aterpeetan lo egiten zuen alderrai bat zen. Zaborrontzietatik jaten zuen. Zertarako bidali zuten Ruth unibertsitatara. Zergatik ezin zuen aurkitu Medikuntzako ikasle atsegin bat, edo dentista bat, edo kontulari bat. Hitzak orro bihurtu ziren, orroak malko bihurtu ziren, eta bi aldeetan isuri ziren. Mutila uzteko agindu zioten Ruthi, eta zentzatzeko. Hura beren etxea zen, ez zezala ahaztu, gero.

Shue eserita zegoen Dodder ondoko aulki luze batean, Ruthek saga errexitatu bitartean.

-Aita eta ama oso bidegabeak ditun, ez dun Romeoren errua hemen ezin lanik egitea.

-Noren errua da, orduan?

Ruthek begirada sutsu azkarra igorri zion Shueri.

-Hi ere ez hasi, Shue! Ezin din pasaporteia erabili; beraz, ezin din erregistro zibilean izena eman. Dena Greziako militarren errua dun.

Shue isilik egon zen pixka batean. Zer esan zezakeen Ruthek altxatu eta alde egin ez zezan? Ruth, hain sentibera zena, hain buruargia. Romeo iritsi arte.

-Ez du bere burua entreg...?

-Ez! Ezin din hori egin, espetxeratu egingo liketen.

-Baina ezingo din inoiz hemen lanik aurkitu erregistro zibileko zenbaki eta antzekorik gabe.

-Moduren bat aurkitu behar dinagu. Nola edo hala.

Shuek aulki luzean utzi zuen Ruth, ibaira begira, baina ikusi gabe.

Ez zen Ruthekin elkartu astebete pasatu arte; gau hartan *Captain Americas*era hanburgerrak afaltzera joateko geratu ziren. *Captain Americas* jatetxe ohikoa zuten, merkea eta alaia. Grafton Streeteko goialdean elkartu ziren. Ruth eta Romeo iritsi zirenean, ordea, Ruthek esan zuen ez zirela jatera sartuko. Romeo Ruthen alboan zegoen, beso bat haren lepotik zintzilik, Shueri eta Seáni begira bere betile beltz luzeen atzetik.

-Romeok eta nik hanburger merke bat eta kafe bat erosiko dugu. Ez daukagu *Captain Americas*era joateko dirurik -esan zuen Ruthek.

Isilunea. Segundo batzuetakoa.

-Baina aspaldi antolatu geninan gaurkoa, Ruth. Gutako inork ez zeukan dirurik. Beti etortzen hintzen... Orain arte -esan zuen Seáne.

-Bazekiat, baina Romeok ez zeukak dirurik langabezia saririk ez duelako. Ez nauk hura gabe sartuko -kontraeraso zion Ruthek.

Hura aditzean, Seánen bekainek gora eta gora egin zuten. Seán zuzenean pasatu zen unibertsitatetik langabeziara, Ruthek gurasoen bizkar bizitzeko graduazioa atera zuen aldi berean. Etxean bizi zen amatxorekin Seán ere. Baina haren ama bina gelako solairu biko etxe batean bizi zen, Dún Laoghairen, ez bost ohe eta Dodderrera ematen zuen negutegia zituen etxe isolatu batean. Hala ere, beti edukitzen zituen sos batzuk alboratuta, noizean behin Shue Talde zaharrarekin irteteko.

Bere bi lagunen erreazioei jaramonik egin gabe, Ruthek kalean behera egin zuen, Romeo eskutik helduta, hartu eta eramateko kafe eta hanburger bana erosi eta Stephen's Green parkeko beren aulki luzean esertzeko. Shuek eta Seánek urruntzen ikusi zituzten. Seánek soinak goratu zituen.

-Tira -esan zuen Shuek-, goazemak zer bait jatera. Goseak amorratzen nagok.

Seán gogotik saiatu zen «tipo hartaz» -hala esaten baitzion Romeori- ez hitz egiten, eta gauza bera egin zuen Shuek. Azkar jan zuten, parkeko aulki batean zeuden beste biak gogoan.

Jatetxetik irten eta berriro elkartu ziren Grafton Streeten. Ruth bakarrik zegoen.

-Non da...?

-Romeok alde egin behar izan du. Goiz joan behar du etxegabeen aterpeko ilaran jartzera -esan zuen Ruthek, kopetilun.

-Hara, lastima -esan zuen Seánek.

Pasieran ibili ziren, arrats giroan kaleko musikariei entzuten ari zen jendetza artean.

-Uste duzuen baino arazo gehiago dauzka Romeok -esan zuen Ruthek-. Gauero aurkitu behar du lo egiteko tokiren bat. Biziki estresatzen nau horrek. Hartaz oso kezkatuta nabilelako. Eta aterpe horiek leku beldurgarriak dira.

Grafton Streeteko hirialdeko muturrera iritsi orduko, ongi informatuta zeuden etxegabeen zenbait alderdiz. Erastunei so zeudelarik *Weirs* bitxi dendan, Ruth hasi zen:

-Romeok lan egin nahi luke, baina ezin du ezta langabezia saria kobratu ere, eta aukera izan beharko luke, Grezia eta gu EBn egonda.

-Eta zergatik ez? Zergatik ez du lanik egiten? -esan zuen Seánek, aurpegiera aldatu gabe.

-Haren estatua... irregularra delako.

-Intsumisoa duk.

-Bakezalea.

-Kontuak egin behar ditin Greziarekin -baieztatu zuen Seánek.

Trinity Colleegeko ate nagusiaren parean zeuden.

-Karitateari esker lortzen du arropa -esan zuen Ruthek-; hau da, nik erosten ez diodana: mokasin dotoreak, eta elastikoak. Alegia, leku horietan lortu nahi ez dituzun gauzak, edo estilo apur bat izan nahi baduzu.

-Nik etxe ondoko Vincent de Paul kateko dendan erosten dinat arropa. Izan ere, ezagutzen hautenean beharpenak egiten ditizten -erantzun zuen Seánek, azkar. Izerditzeko jertsea laztandu zuen, nabarmenkeriaz.

-Tira, hik badakik hizkuntza. Romeo ikasten ari duk oraindik...

-Hirekin?

-... eta astiro hitz egin behar duzue, hobeto ulertu dezan. Ahalegintxo bat egin behar duzue. Niregatik -errieta egin zien Ruthek.

O'Connell Streeteko zubian zeuden, artean Ruthi entzuten.

-Gurasoek esan didate ez dutela etxean berriz ikusi nahi. Aitak dio Poliziari deituko diola berriz eramaten badut. Arlote deitzen dio Romeori. Arlote! Ez dute hura ulertzen. Ni neskato baten modura tratatzen naute. Gorroto diet batzuetan!

Shue erantzutera zihoan, baina Seánek eskua besoan jarri zion.

-Maitea, haragikeria dun ergelkeria ororen jatorria -xuxurlatu zion belarrira Ruthek kexatzen jarraitzen zuen bitartean; oraingoan, gizarteaz eta aukera desberdintasunaz. Shuek begiratu egin zion, eta baiezko mutua egin. Ez zen une egokia. Baina kontua zen Ruthekin hitz egiteko ez zela inoiz une egokia.

Azkenean Ruth Romeok bizitzarekin zituen arazoak, berak gurasoekin zituen arazoak, Mendebaldeko Europak soldadutzarekin zituen arazoak, etxegabetasunarenak eta greziera-ingeles arazo linguistikoak zerrendatzen amaitu ondoren, lasaitu egin zen, eta negar pixka bat egin zuen. Seán ez zegoen batere hunkituta, oraindik sutan Ruthekin, gurasoek ematen zioten dirutik euro gutxi batzuk aurrezteko gai ez zelako, oso noizean behin gauez irteteko. Shueri susmagarria iruditzen zitzaion tipoak nahikoa konfiantzarik ez izatea inorekin -eta batez ere gorteiatzen ari zen neskarekin- bere benetako izena esateko.

Esan beharrik ez dago gau hartan ez zutela *Copper Face Jacks* dantzalekuan bukatu, ohi bezala. Banandu egin ziren O'Connelleko zubian. Seánek lur gaineko metroa hartu zuen, neskek autobusa hartu zuten, eta isilik egin zuten ibilbidea. Ruthen geltokia iritsi zenean, Shuek ez zion agur esan Ruth jaisteko zutitu zenean. Oso haserre zegoen Ruthekin, haserre Romeo madarikatuarekin eta haserre bere buruarekin eta Seánekin ere bai, Ruthi eta Romeori parranda hondatzen utzi zietelako. Ruthek ere ez zuen hitz egin.

Bolada batean ez zuten Ruthen berririk izan. Smsrik ez, mezu elektronikorik ez, hitzik ez sare sozialetan. Egia esan, atsedean bat behar zuten harengandik. Seán Kanadan lan egiteko bisaz informazioa biltzen ari zen, eta Shue, berriz, azken azterketak prestatzen.

Aste batzuk geroago, Shue etxeko sofán zegoen, tea eskuan eta telebistari so. Seáni hots egin zion, amaren telefono finkotik, mugikorrean krediturik gabe baitzegoen.

-Hik ere ez dun haren berririk izan? Ez? Bitxia dun! -izan zen Seánen erreakzioa.

-Ez. Eta ez ditik mezuak erantzuten, ezta telefonoa ere -esan zuen Shuek.

-Eta Romeoren mugikorraren zenbakia ez zekinagu. Ezin zionagu deitu zer gertatzen den jakiteko. Haren benetako izena ere ez zekinagu.

-Halaxe duk -marmar egin zuen Shuek-. Izan ere, *Romeo*? Zer esaten digu horrek tipoaz? Beharbada hiru aldiz ezkonduakoa duk eta batek daki zenbat haur dituen.

-Ene, malkotan bukatu behar din honek -esan zuen Seánek, destainari.

-Ez bagenek bezala! -gaineratu zuen Shuek, zorrotz.

Beste gauza batzuez mintzatzera pasatu ziren. Seánen bisa eskaera. Mutil-lagun berria (harena, ez Shuerena). Shueren azterketa. Gurasoekin bizitzaren tortura...

Ostiral gaueko goizeko hiruretan Shue lo zegoelarik, mugikorrak jo zuen. Anaia madarikatua, pentsatu zuen, berriro galdu ditu etxeko giltzak dantzalekuren batean.

-Bai...? -esan zuen, ia hasperen bat, begiak itxita.

-Shue, Ruth naun, utziko al didan gaua hire etxean pasatzen?

-Bai horixe -esan zuen Ruthek ahapetik, begiak oraindik itxita, Ruth hirian egongo zela pentsatuz, handik ia hiru ordu laurdenera gaueko busean. Ohea bero-bero zegoen-. Non hago?

-Kanpoan, atari aurrean.

Kaka zaharra.

-HmMMM. Ados, itxoin minutu bat -marmarikatu zuen Shuek.

Ohetik atera zen eta behatz punten gainean jaitsi zen beheko oinera. Poliki zabaldu zuen kanpoko atea, eta hantxe zegoen Ruth dardaraka, errimela guztiz lausotuta.

-Sukaldera -xuxurlatu zuen Shuek.

-Jainkoa, Ruth, zer piura da hori? -esan zuen Shuek, sukaldeko atea sendo ixtearekin batera. Ruth ekonomikaren ondoko aulki batera eramanez eta bertan eseri zuen-. Zer gertatu da?

-R-R-Romeok -hortzak karraskatu zituen Ruthek- berriz gurasoen etxean lo egin nahi izan din. Aterpean sartzeko ordua pasatu zaion. Eta nire gurasoek ezin dituen jasan. Eta zabor guztia niri zetorkidan, bai harengandik bai aita eta amarengandik, kokoteraino nagon. Eta ezetz esan zionat.

Ekonomika epeletik hurbil zegoen, burua jaitsita, Shueri begiratu gabe.

-Jo egin al hau? -galdetu zion Shuek, esku bat aldakan, begirada gogorra, ur ontzia irakiten jarri bitartean.

-S-saiatu egin dun, baina bultzatu egin dinat.

-Eta gero, zer?

-Gurasoen etxe kanpoko lohian irrist egin eta Dodderrera erori dun! -esan zuen Ruthek garrasika.

-Xxx. Zaharrak esnatu gabe -ohartarazi zuen Shuek-. Ta...?

-Ez zekinat. Ilun zegoen, ez ninan ikusten, ikaratuta nengonan. Korrika etorri naun honaino.

Shue mahaira eseri zen bi te kikarekin, eta pentsatzeari ekin zion.

-Ongi -esan zuen puska baten ondoren-, bere kabuz moldatu beharko din. Goizeko hiru eta erdiak ditun, eta lur jota hago. Bihar ikusiko dinagu zer egin.

Ruthek negar-zotin batzuk egin zituen, baina ez zen kexatu. Bere tea hurrupa txikitari hartu zuen hasieran, baina gainerakoa dangada handitan bukatu zuen.

-Ongi, goazeman bada. Gonbidatuen gelan lo egin dezaken -esan zuen Shuek, hatza ezpainetara eramanez-. Ez ama esnatu -esan zuen hortz artean, eta gorantz egin zuten.

Hurrengo goizean atsedean hartutako Ruth ulergarriago bat irten zen logelatik. Shueri onartu zion harremana gero eta okerrago zihoala. Ruthek lan bat nahi zuen, gurasoengandik independizatu ahal izateko. Romeok ere Ruth gehiago ahalegintzea nahi zuen gurasoenetik irten ahal izateko. Baina bakar-bakarrik bera ere harekin batera bizitzera joateko, errenta ordaindu gabe. Haragikeria urrituz joan zen, eta beren artean sumindura sortu zen. Eztabaidak, sesioak. Shuek susmatzen zuen eskuren bat altxatuko zela ere, baina ez zuen ezer esan.

-Ene, Shue, tuntun hutsa izan naun. Nola pentsa nezakeen inoiz hartaz maiteminduta nengoenik?

-Gauza arraroagoak gertatzen ditun -esan zuen Shuek-; eta itzultzen baldin bada, prest egongo haiz. Gaur marra bat zeharkatu din; ez din bi aldiz egingo.

Ruthek osteria eman zion negarrari.

-Hain zunan atsegina bart arratsa arte -esan zuen-. Baina bart, zera, autobusera jarraitu zidan. Ez nindunan konturatu ere egin, nire geltokian jaitsi zen arte, nire atzetik. Berriro gurasoenean egon nahi zuela nirekin, hori zionan behin eta berriro. Ezinezkoa zela esan zionat, baina esan din ez zidala ezezkorik onartuko.

-Eta ibaian amaitu din.

-Bai.

Ruth irribarrez ari zen, estreinako aldiz zenbait hilabetetan, jabetzen baitzen ez zela sekula harengana itzuliko, inola ere ez. Romeo lohian irrist egiten eta plast batekin ibaira erortzen ikustea epifania hutsa izan zen. Kito eztabaidak, kito malkoak.

Harekin harreman gehiagorik ez izatea erabaki ondoren, berreskuratu egin zuen konfiantza. Shue Ruthen mugikorrean saltseatzen hasi zen, barrez, izena aldatuz *Romeotik Iraganara*.

Shuek eta Ruthen patxadaz eman zuten eguna. Shueren amari lagundu zioten etxeko lanekin. Parkera joan ziren paseoan, berriketan etengabe. Seánen mutil-lagun berriaz hitz egin zuten, emigrazioaz (Ruthen), gaizki ordaindutako lantxo bat eduki eta etxean bizitzen jarraitzearen alde onez eta txarrez edo Valentzian ingelesa irakasteaz (Shuek). Romeoz ere hitz egin zuten, orain gaizto bilakatua Ruthentzat. Barre ederrak egin zituzten hura irudikatuz sakonera gutxiko ibaiertzean, bularreraino Dublineko ur zikinean sartuta. Hori izan zen arratsaldeko seietako albistegia entzun zuten arte.

«... eta, azkenik, Dublineko Polizia informazioa eskatzen ari da gaur goizean Orwell Roadetik hurbil Dodder ibaian itota aurkitu duten hogeita bost urte inguruko gizasemearen inguruan. Uste da gizona erori eta ibaiko arroka batekin kolpea hartuko zuela, oso sakonera gutxian ito baita. Ez da krimenik susmatzen. Gizonak ez zeraman gainean inolako dokumentaziorik...».

Shue Ruthengana jiratu zenean, izua ikusi zion aurpegian. Shuek hatz bat ezpainetara eramanean zuen. Azken batean, ez zekiten tipoaren izena ere.

* * *